

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

70/2016 Mozioa, azaroaren 16koa, Bizitza Berria elkarteko baliabideen erabiltzaileen egoerari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko azaroaren 16an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

70/2016 Mozioa, azaroaren 16koa, Bizitza Berria elkarteko baliabideen erabiltzaileen egoerari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, presaz eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin koordinatuta, alternatiba bat eskaini diezaiela egun Bizitza Berria elkarteak kudeatzen dituen baliabideen erabiltzaile diren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, eta erantzuna eman dakiola kolektibo horren beharrezanez, bai etxebizitzari dagokionez bai programei dagokienez, bermatuz pertsona horietako bat ere ez geratzea arretarik gabe.

2. Arabako Batzar Nagusiek, azken gertakarien ondoriozko inguruabar bereziak kontuan harturik, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari eskatzen diote lehentasuna eman diezaiola gizarte bazterketa maila handiena duten pertsonen erantzuna emango dien proiektu sozial bat garatzeari buruzko irailaren 28ko 57/2016 Mozioa betetzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA